

ONDORENGO JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

HARTZAILEAK: LEHEN HEZKUNTZA 5 eta 6 mailak.

DENBORA: 60 min.

HELBURUAK:

- Ugaztun honek bere inguruan eta gizakiarengan dituen onurak ezagutzea eta baloratzea.
- Animalia hauekiko eta naturarekiko errespetuzko jarrerak bultzatzea.
- Xaguxatarrak babesteko neurriak hartzera bultzatzea.

EDUKIAK:

- Xaguxatarrek gizakiarengan eta naturarengan dituzten onurak, mehatxatutako espezieak, xaguxatarrak babesteko neurriak.

METODOLOGIA:

Bisitaldia egin ondoren, bertan jaso duten informazioan oinarrituta,

1. Ikasleek kalkulatu dute espezie jakin batetako 1.000 xaguxatar dituen kolonia batek gau batean jan dezakeen intsektu kopurua.

2. Kontuan izan beharrekoa:

- a) Bakoitzak 800 intsektu/orduko jaten baditu eta gau bakoitzean 6 orduz ehizatzen badute.
- b) Kolonia honetako xaguxatarrak urtean 4 hilabetetan aktibo egoten badira, zenbat intsektu jango dituzte aktibo egoten diren epe horretan?

3. Amaitzeko, Interneten informazioa aurkituko dute xaguxatar bat topatuz gero zer egin beharko luketen. Ondoren, taldeka banatuta (3 edo 4ko taldeak), kartelak egingo dituzte aholkuak emanez. Talde bakoitzak xaguxatarrak babestera bultzatuko gaituen esaldi egoki bat asmatu eta kartelean idatziko du. Kartel hauek gelan edo pasilloan zintzilikatuko dituzte.